



TOLOSAKO
UDALA

3. DIRULAGUNTZA LERROAK. GIZARTE ZERBITZUEN ETA OSASUNAREN ALORREKO JARDUERAK EGITEN DITUZTEN ELKARTEEN MANTENURAKO DIRULAGUNTZAK.

Gizarte ekimenarekin lotutako lankidetzan diharduten irabazi-asmorik gabeko elkarten funtzionamendurako eta mantenurako dirulaguntzak dira, beti ere arreta jarduerak eta sentsibilizazio ekintzak burutzen badituzte.

Dirulaguntzen zenbatekoa gehienezko 400€ko muga eta gutxienekoa 100€koa izango da, beti ere, baloratutako puntuazioa betetzen bada.

NORK ESKA DEZAKE?

Gizarte arloan jarduten duten irabazi-asmorik gabeko edozein elkarte eta gobernuz kanpoko elkarteek eskatu ahal izango dute diru-laguntza hau. Baldintza hauek bete behar dituzte:

- Tolosako udalerrian izango dute egoitza nagusia edo legez osatutako ordezkari-tza.
- Eusko Jaurlaritzaren Elkarten Erregistroan edo Tolosako izaera Sozialeko elkarten erregistroan egongo dira.

Salbuespen gisa, udalerrientzat interesgarriak diren jarduera sozialek ere laguntza jaso ahal izango dute, nahiz eta elkarte edo erakunde eskatzaileak Tolosan ordezkari-tza ofizialik ez izan.

AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK:

- Elkarten mantenurako laguntzak egiteko eskabidea (II. Eredua).
1 edo 2 laguntza lerroetarako eskaera egin dutenek EZ dute eredu hau bete beharko.
- Zinpeko aitortpena (V. Eredua).
- Entitate eskatzailearen datuak eta IFZaren kopia.
- Gizarte Segurantzza eta Ogasuneko betebeharrak egunean daudela adierazten duen ziurtagiria (edo VI. Eredua).